

Narratiba britainiarren gailurrak

XX. mendearen erdialdean jaiotako hiru idazle ingeles
nobelak euskarara itzuli dituzte azken urteetan.

Julian Barnes, Kazuo Ishiguro eta Ian McEwanen lanak hain
urrunkoa ez zaigun historia bestelako begiekin irakurtzeko
aukera ematen duten eleberriak dira.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

1 983an *Granta* aldizkariak zenbaki berezi bat argitaratu zuen: udaberria zen, landareak loratzen diren sasoi; topikoei kasu eginez gero, gaztetasunarekin lotzen diren hilabeteak; eta klima horrekin bat eginda-edo, nobelagintza britainiar berraren erakusgarritzat jotzen ziren 20 idazleren lanak publikatu zituzten. Aldizkari hartako editorea zen Bill Buford aitortu behar zaio begirada zorrotza zeukala, duela 36 urte fokupean jarri zuten egile haietako zazpik ondoren egin duten ibilbidea ikusirik bete-betean asmatu baitzuen. Martin Amis, Julian Barnes, William Boyd, Kazuo Ishiguro, Ian McEwan, Salman Rushdie eta Graham Swift: *Granta* belaunaldia. Urteen poderioz, kanoniko bihurtu dira letra britainiarretan eta Ishigurok duela bi urte irabazi zuen Literatura Nobel Sariaren uberak nazioarteko letren parnasoko atea ere ireki dizkie.

Talde heterogeneoa da, baina ezau-garri amankomun batzuegatik identifikagarria. Hasteko, garai bertsuan jaio zirela, II. Mundu Gerraren amaiera aldera, Graham Greeneren Gerra Hotzeko nobelak nagusi zirenean, neoerrealismo italiarra, *nouveau roman* frantsesa,


AEBetako beat belaunaldia; eta argitaratzen hasteko adina iritsi zitzaieneko, Margaret Thatcher izeneko lehen ministro bat zeukan Erresuma Batuak eta boladan zegoen Sex Pistols eta The Clashen gitarretatik eztanda egin zuen punk musika: Barnes da taldeko nagusia (1946an jaio zen) eta Ishiguro, berriz, gazteena (1954). Alegia, hogeita hamar urteren bueltan zebiltzan *Granta*-ren zorioneko zenbaki hark euren testuen gainean lupa jarri zuenean.

Edadeaz gain, azpimarratu izan zaizkie posmodernitateak berezkoak dituen jarrerak –tradizioaren berrirakurketa ironikoak egitea, idazle poskolonialak izatea–, klixearen kontrako gerran erakutsi duten engaiamendua, asko espero ez dituzun estiloko obrak idatzi izana –adibidez, Barnesek sukalde-liburu antzeko zerbait dauka argitaratua, nazio kulinario honetako pertsona asko deskribatzeko ere balio duena, bidenabar: *Pedantea sukaldean*–. Baina haien ibilbideari begiratuta, atentzio handiena honakoak deitzen du: oreka zail bat lortzeko gai izan direla, kalitate goreneko literatura egitearen despit, asko saltzen baitute; Booker saria irabazten dizute gaur eta bihar berriz, mundu osoko hiz-

kuntzetara itzulita ikusten dituzu, irakurleak zain dauzkatelako, haien istorioak komertzialak baitira, florete baten fineziarekin idatzita egoteaz gain.

Urtetan, idazle lanak jatorrizko hizkuntzan, gaztelaniaz edo frantsez eskuratzea izan du aukera bakarra euskal irakurleak. Baina azken hamarkadan *dream team* britainiarreko hiru idazleren lanak euskaratu dira. Ian McEwanen *Hoben ordaina* izan zen argitaratzen lehenbizikoa, 2013an, Igela argitaletxean, Xabier Olarraren itzulpenari esker. Segur aski McEwanen nobelarik ezagunena da, 2007an Joe Wrightek liburuan oinarrituta zuzendutako film arrakastatsua dela medio.

Tallis ahizpen istorioa irakurri ondoren, bost urte itxaron behar izan dira belaunaldi horretako idazleen lan gehiago euskaraz leitu ahal izateko, papelean behintzat –2016an Armiarma.eus atariak argitaratu zuen Ibon Sarasolak itzulitako Barnesen ipuin bat, *Lurraren mailan*–. Hori bai, bat-batean, auskalo euskal argitaletxeak ados jarri direlako edo –probableagoa dena– kasualitate eder batengatik, iaz Leicesterreko idazlearen azken eleberria (*Istoria bakarra*) argitaratu zuen Meettokek –Aritz Gorro-





txategik itzuli zuen; gaztelaniaz baino lehen argitaratu zen euskaraz gainera; eta Elkarrek berriz, Kazuo Ishiguroren nobela printzipaletako bat publikatu zuen, *Egunaren hondarrak* –hau ere zinemara eraman zuten 1993an, Anthony Hopkins eta Emma Thompson protagonista zituela–, zeina Amaia Apalauza Ollok eta Iñigo Roque Eguzkitzak itzuli duten, Nobel saria euskaratzeko Arrasateko AED elkarteak ematen duen Jokin Zaitegi bekari esker.

Hortaz, egoera nahiko berezi baten aurrean gaude: ibilalditxo bat egin dezakegu, gure hizkuntzatik jaitsi gabe, nazioarteko literaturako pisuzko idazle belaunaldi garaikide baten lanetan barrena.

MAITASUN FRUSTRATU ETA FRUSTRAGARRIAK

“Zer nahiago zenukete, gehiago maitatu eta gehiago sufritu, ala gutxiago maitatu eta gutxiago sufritu? Nire ustez, hori da, azken batean benetako galdera bakarra. (...) Zeinek kontrola dezake zenbat maite duen? Kontrolatu ahal baduzu, orduan ez da maitasuna. Ez dakit nola deituko duzun horren ordez, baina ez da maitasuna”. Asmo deklarazio horrekin hasten zaio hizketan irakurleari Barnesen *Istoria bakarra*-ko protagonista. Harreman sentimentalak maitasun erromantikoa-ren marko zurrin horretatik begiratzen dituen pertsonaiak bere bizitzako emakumearekin daukan erlazioaren higadura geldoa kontatzen du ondorengo 200 orrialdeetan eta bi pertsonaren bizitzak nola hondoratzen diren irakurri ondoren, duda egiten duzu amaieran irauten due-

na zer den, maitasuna, sakrifizioa, ohitura edo errukia; edo osagai guztien konbinazio auto-suntsitzaila bat. Gauza bakarra da segurua: inondik inora ez dela beste maitasun hori, azukre zapore eta arrosa kolorekoa.

Eta gauza bera esan daiteke Ishiguro-ri eta McEwani euskaratutako nobelez ere: amodioa hor dago, baina oso itxura fidagarria ematen ez dion filtro batetik pasatzen dituzte euren pertsonaien harremanak, printze eta printzesen istorioen antza eduki dezakeen edozer agertzen bada, kontua ez dadin joan mota horretako narrazioek eskatuko luketen –eta irakurleak aurreikusi dezakeen– bideetik: hamarkadatan lankide batengatik sentitzen duena ulertzera ere iritsi ez den maiordomoa, nobelaren klimaxean afektu adierazpen txikiena egiteko ere ezgai; edo betidanik ezagutzen duen neskari maite duela esateko lizunkeriaz betetako mezu bat bidaltzen bukatzen duen mutil gaztea: gauzatu gabeko maitasun istorioak, frustratuak, frustragarriak. Irakurlea intelektuali desafiatzen duten afektu inperfektuak.

GARAIZ KANPO

II. Mundu Gerra hasi aurreko urteak eta gerraostea kontrastean jartzea da hiru nobelen beste ezaugarri amankomun bat. *Hoben ordaina*-n Robbie Turner eta Cecilia Tallisen arteko afera gertatzen deneko, azken honen aitak ordu asko pasatzen ditu ministerioan sartuta, etorriko den gatazka militarreko prestaketetan murgilduta. I. Mundu Gerraren ondorioz Alemaniari ezarritako zigorrak kezka-

tzen dute *Egunaren hondarrak*-eko protagonistaren nagusia, Lord Darlington; eta horregatik Oxfordetik gertu daukan jauregian 30eko hamarkadan buruzagi naziekin antolatzen zituen bilerak gogoratzen ditu protagonistak. Bestelakoa da II. Mundu Gerraren agerpena *Istoria bakarra*-n, protagonista maitemintzen den emakumearen senarrarengan hezurramitzen baita: joko kanpo eta traumatizatuta dagoen, tristea eta aldi berean erasokorra den Gordon McLeod patetikoa, zeinaren soslai ilunak ez daukan zerikusirik frontea ezagutu ez duen 19 urteko protagonista gaztearen kezka-gabetasunarekin.

1939tik 1945era gertatutako guztia, gerraurrea eta gerraostea, XX. mendea erdibitu zuen momentua: aurretik baziren ohiturak, bazen obedientzia; baziren fideltasuna eta betirako ziruditen loturak, bai gizartean, bai pertsonen artean; eta, agian, inoiz gehiago itzuliko ez zen inozentzia moduko bat ere bai. Gerraosteko espirituak berriz, askatasun pertsonalaren bilaketatik du gehiago, iraultza sexuala, gaztetasun berri bat, zeinak gurasoen aginpidetik ihes egiten duen eta xalotasuna galtzen duen instituzio sakratuenganako konfiantzarekin batera. Transformazio erraldoiak dira, traumatikoak eta oso denbora gutxian gertatuak. Eta historiaren arrabola gupidagabe horrek azpian harrapatutako pertsonaiak dira idazle britainiar hauen nobelotan aurkitzen ditugunak.

Iragan hurbilari begiratzeko modu horren beste ezaugarri bat distantzia kritikoa da. Hiru idazleak gerra amai-

Zer gertatu zen *Granta*-ren zenbaki hartako emakumeekin?

20 gazteren lanak nabarmendu zituen 1983ko *Granta* aldizkariak, baina haietatik zazpi agertzen dira, gehienez, idazle-belaunaldi hori aipatzen denean. Eta, irakurlea jabetuko zen moduan, denak gizonak dira. Baita euskarara itzuli direnak ere. Kanon literarioak praktikoak izan daitezke zer irakurri eta zer ez erabakitzeke, baina inoiz ez dira sailkapen neutroak izaten eta, kasu honetan ere, begi-bistakoa da idazleen generoak eragina izan duela haien errekonozimenduan.

Best of Young British Novelists tituludun zerrenda errepasatuz, emakumeek idatzitako lanak ere aurkitzen dira ordea. Eta askok ibilbide literario luzea egin dute azken hiru hamarkadetan: Pat Barkerren *Regeneration* (1991), *The Eye in the Door* (1993) eta *The Ghost Road* (1995) nobelek osatzen duten trilogia, adibidez, I. Mundu Gerrari buruz Erresuma Batuan idatzi diren fikzio onenen zerrendetan maiz aipatzen da.

Maggie Geek hamabi nobela argitaratu ditu geroztik, estilo modernista eta gai sozialak uztartuz, eta Royal Society of Literature erakundeko presidenteordea da. Lisa St Aubin de Teránek fikzio autobiografikoaren eremuan egin du ibilbidea eta Rose Tremainek berriz errealdismo magikoaren ildoari jarraituz lortu du aitortza, bai Erresuma Batuan, baita atzerrian ere –besteak beste, Femina sari prestigiotsua eman zioten Frantziako Estatuan 1994an *Sacred Contry* nobelarengatik–.

Zerrendan badira literatura goiz samar utzi zuten emakumeak ere: Buchi Emechetaren nobela garrantzitsuenak 1980ko hamarkadan argitaratu ziren eta gerora literatur lanak argitaratu bazituen ere, ibilbide akademikoan jarri zuen indar handiagoa.

Seguruenik Ursula Bentleyren historia da *Granta* hartako emakume idazleen artean tristeena: duela 15 urte

hil zen eta emakumea izateagatik bizitzan jasandako gorabeherak guztiz baldintzatu zituen haren karrera: 1982an ama izatearekin batera argitaratu zioten lehen eleberria eta haur horren zaintza arduratzen zen bitartean idatzi zuen bigarrena, 1986ko *Private Accounts*. “Gero dena gaizki joan zen”, irakurtzen da *The Guardian*-ek publikatu zion obituarioan: ia hil egin zen akats obstetrikoko baten erruz, banandu egin zen eta Suitzatik Erresuma Batua itzuli behar izan zuen, zerotik hasiera. 1990eko hamarkadan beste bi liburu argitaratu zituen, baina inoiz ezingo da jakin noraino iritsi ahal izango zen genero-desberdintasunak eta baldintza sozialek arnas pixka bat gehiago hartzen utzi izan balio.



tu ondoren jaio ziren eta, hirutik bi eleberritan kontatzen diren istorioak ez daude oinarrituta egileek zuzenean bizi ahal izan zituzten gertakizunetan. Are gehiago, pentsa liteke gerra egin zuen belaunaldiaren mitoak eraisteko asmo bat ere badagoela, *Hoben ordaina*-n deskribatzen den fronteko eszena bakarria armada britainiarraren erretiratze tamalgarri bat dela ikusita; edo *Egunaren hondarrak*-en Ingalaterrako aristokraziaren parte batek naziekin izan zituen loturak iradokitzen direnean. Mito erromantikoak bakarrik ez, tatxarik gabeko demokraziaren aldeko borrokalarien ipuinak ere bertan behera geratzen dira.

KOKTELERA LITERARIOA

Baina interesgarriena da nola egiten duten idazleok istorio horiek funtziona dezaten. Aipatu dugu nola kasu ematen duten Barnesek, Ishigurok eta McEwanek

euren pertsonaiak bide gastatuegietatik ez eramateko. Horrek ez du esan nahi, ordea, hutsetik abiatzen direnik. XIX. eta XX. mendeetako tradizio literarioaren berriakurketaren zantzuk nonahi ikusten dira *Hoben ordaina*-n, *Egunaren hondarrak*-en eta *Istoria bakar*-n. Adibidez, McEwanen liburuaren hasieran murgildu eta saihestezina da Jane Austenen 1813ko *Harrota* eta *aurrejuzguak* eleberrian pentsatzea –Ana Isabel Moralesek euskaratu 1996an; Elkarren Urrezko Bibliotekan berrargitaratu zuten gero, 2013an, *Hoben ordaina* publikatu zen urte berean–, bi nobeletako pertsonaien bilakaeren diferentziak gorabehera: Elizabeth Benneten eta Fitzwilliam Darcyren istorioak gaizkiulertu asko gauditu behar ditu ongi bukatzeko; gaizkiulertu bakar bat nahikoa da, aldiz, Cecilia Tallisen eta Robbie Turnerren artekoa betirako hondatzeko. Tradizioa berriakurri

bai, baina berridatzi ere egin daiteke.

Lotura gehiago: nola ez akordatu Ford Madox Forden *Historiarik goibelena*-ko (Igela, 1999) narratzaile ez-fidagarriaz *Egunaren hondarrak* protagonizatzen duen Stevens maiordomoaren oroitzapenak irakurtzean, eta pixkanaka ikustean iraganari begiratzen dion modua beteta dagoela gezur errukitsuz, arrazionalizazioz eta gertakariak zirena baino ederrago aurkezten dituzten distortsioz. Nola ez gogoratu, *Istoria bakar*-ko protagonista emakume nagusiago batekin maitemintzen dela ikustean, Gustave Flauberten *Heziketa sentimental* ardazten duen Frédéric Moreau eta Marie Arnouxen arteko harremanaz. Bai, istorio hauek lehenago kontatuta daude. Baina istorio guztiak daude aspaldidanik kontatuta. Barnes, Ishiguro eta McEwan berezi egiten dituenak, berriz kontatzen hasten direnean daukaten artea da. ●